

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioa ,merkatu osoari zabaldua dago(umeak,gazteak,helduak zaharrak...) . Gaixorik edo osasunari buruzko edozein zalantza duen pertsonentzat zuzenduta. Gehienbat lanean dauden pertsonak, ez dutelako denborarik medikuarenera joateko eta honekin momentu batean irtenbide azkarra izango dute. Gainera, etxetik irteteko zailtasunak dituztenek erabiliko dute, adibidez elbarrituek edo adineko pertsonak.

ZEIN DIRA BEZERO HAUEN EZAUGARRIAK:

TXIKIAK: Etxean egotea zaila da haientzat (jolastu nahi dutelako) eta gurasoentzat ere. Etxean ezin dituzte bakarrik utzi eta beraz zailtasunak dituzte seme-alabekin geratzeko. Aitona amonak edo zaintzaileak bilatu behar dituzte edo lana utzi. Beraz, azkar sendatzea da biek bilatzen dutena.

Honen arazo bakarra aplikazioa hitz teknikoak dituela da, eta zentzudunez erabili behar dela. Beraz umeak zeharkako bezeroak izango lirake. Hau da, gurasoek erabili ditzakete haiengatik.

GAZTEAK: Hauek ikasketekin, kirolekin eta klase ondorengo ekintzekin denbora gutxi daukate medikuarenera joateko eta klaseko egun bat galtzen badute, denbora asko egon behar dira, klasean egindako lan guztia aurreratzeke. Gainera, gazteek mobilen eta teknologia aurreratuaren mundua oso ondo ezagutzen dutenez ez dituzte zailtasunak izango gure aplikazioa erabiltzeko.

HELDUAK: Lanera joateaz gain, etxeko lanak edo seme-alabak edo bestelako ardurak dituzte. Beraz, ahalik eta lasterren sendatzea nahiko lukete. Helduak gero eta hurbilago daude teknologia berriekin, beraz ez dute zailtasunik izango.

ZAHARRAK: Teknologia aurreratua erabiltzeko zailtasuna izan ditzakete baina aplikazioa oso sinplea da, bezero haietan pentsatu baitugu.

Hau da, gure aplikazioa erabiltzeko IOS edo ANDROID tresna bat izan da.